



Herri txikiak aurrera begira: Mugikortasun berriaren aukerak eta erronkak



Herri txikietako bizi kalitatea, hein handi batean, lotuta dago bertako biztanleek mugitzeko dituzten aukerekin; eta garrantzitsua izan daiteke aukera horiek ondo aprobetxatzea.

Ira. 12 2025

Kod. G31-25

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 12 2025

Kokalekua

Zeraingo eliza

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Aldaketa klimatikoaren, trantsizio energetikoaren eta trantsizio ekosozialaren garaian, mugikortasuna da aldaketa sakonean dagoen arloetako bat. Auto elektrikoa, garraio publikoaren birkonfigurazioa, gidaririk gabeko ibilgailuak... asko eta askotarikoak dira pil-pilean dauden aldaketak; hain zuzen, pertsonok alde batetik bestera inoiz baino gehiago mugitzen garen garaiotan. Testuinguru honetan, egokia da galdetzea mugikortasunean gertatzen ari diren aldaketek eta iraultzek nola eragingo duten herri txikietan. Izan ere, landa eremuko auzo eta herri txikietan, baserri inguruetan, normalean jendea sakabanatuta bizi da, eta ibilgailuaren menpeko da eguneroko egiteko ia guztietarako. Aurrera begira jarrita, mugikortasunaren erronkek eta aukerek etorkizuneko herri txiki bizigarrietan izan ditzaketen eraginei buruz hausnarketa egitea garrantzitsua da.

Aurreko urteetako bideari jarraituz, Uda Ikastaro hau herri txikien etorkizunari begira jarriko da, mugikortasunaren ardatza landuz. Ibilgailu elektrikoek, autonomoek, garraio publiko mota berriek edota mugitzeko antolakuntza komunitario berriek hainbat aukera ekar ditzakete. Herri txikietako bizi kalitatea, hein handi batean, lotuta dago bertako biztanleek mugitzeko dituzten aukerekin; eta garrantzitsua izan daiteke aukera horiek ondo aprobetxatzea, bai herrietan bizitzeko baldintzak sortzeko etorkizunean ere, bai komunitatearen garapenerako mugikortasuna diseinatzeko. Horretarako, ikastaro honetan, hainbat diziplinatatik (teknologia, landa garapena, soziologia...) egindako hausnarketak eta Euskal Herriko hainbat lekutako esperientziak uztartuko dira.

Helburuak

Landa eremuko herri txikietako mugikortasunari buruzko gogoeta egitea, teknologiaren aukeren, herri bizitzaren eta komunitatearen ikuspegitik.

Euskal Herriko landa eremuko mugikortasunari buruzko esperientzia aurreratu eta inspiratzaileak ezagutzea.

Auzolaneko kulturaren eta komunitatearen garapenaren jarraipenerako XXI. mendeko mugikortasun ereduak irudikatzea.

Antolakuntza



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Zuzendaritza



Andoni Eizagirre Eizagirre

Mondragon Unibertsitatea, Irakasle Titularra

Mondragon Unibertsitateko Irakaslea. Filosofian Doktorea. Gaur egunean “Herrigintzaren Berrikuntzan” egitasmoaren zuzendaria. Bere argitalpen batzuk hemen daude ikusgai:

<https://www.researchgate.net/profile/Andoni-Eizagirre>



Ion Muñoa Errasti

Deustuko Unibertsitatea

Ion Muñoa Errasti Deustuko Unibertsitateko Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko irakasle-ikertzailea da. Giza Zientzietan eta Komunikazioan lizentziatua eta Gizarte Zientzietan doktorea da. Deustuko Unibertsitateko Komunikazio graduako irakaslea eta Komunikazio ikertaldeko kidea da. Intereseko gai nagusiak Komunikazio Publikoa, Iritzi Publikoa eta Komunikazioaren eraldaketa dira.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2025-06-30 ARTE	2025-09-12 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	34,00 EUR
Orokorra	-	48,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	41,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	34,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	41,00 EUR
Donostia Kultura	-	41,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	41,00 EUR
Elkar	-	41,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2025-06-30 ARTE	2025-09-12 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	34,00 EUR
Orokorra	-	48,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	41,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	34,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	41,00 EUR
Donostia Kultura	-	41,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	41,00 EUR
Elkar	-	41,00 EUR

Kokalekua

Zeraingo eliza

Zerain Núcleo Gunea, 15, 20214 Zerain, Gipuzkoa

Gipuzkoa